



AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEKO DEKRETUA HIRUGARRENEZ ALDATZEN DUEN PROZEDURA HASTEKOA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, 6/2022 Legea) helburutzat dauka xedapen orokorrak egiteko prozedura, besteak beste Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorretan aplikatzeko.

Lege horren ondorioetarako, xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak.

6/2022 Legearen 12.1. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko titular den sailburuaren aginduz hasiko dela. Agindu horren edukiari dagokionez, kontuan hartu behar da arau honen 13.1. artikuluan ezarritakoa.

Aurreko hori betez, agindu honen xedea da Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzen duen Dekretua onartzeko prozeduraren hasiera erabakitzea.

Hala, gaiaren arabera, Lan eta Enplegu Sailak du eskumen hori, lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) esleitutako eskumenera arabera.

6/2022 Legearen 13.2. artikulua arabera, prozedura hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarri-taulan argitaratuko da. Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ahal ditzan, hala nahi izanez gero.

Donostia kalea 1- 01010 VITORIA-GASTEIZ.



Dekretu-proiektuaren helburua eta xedea, eta zenbateraino den bideragarria legez eta materiaz.

2021eko urtarrilaren 30ean, indarrean jarri zen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretua, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa betetzeko (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Ondoren, segurtasun juridikoaren eta haren aplikazioaren eraginkortasun eta aplikagarritasun handiagoaren alde, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretu hori aldatu egin zuten, batetik, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko Dekretua aldatzen duen uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak eta, bestetik, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekretua bigarrenez aldatzen duen uztailaren 12ko 84/2022 Dekretuak.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3.2. artikulua araber, «Honako organo hauek ere Lan eta Enplegu Sailari atxikita edo lotuta daude, sortze-arauek ezartzen dutenaren arabera:

- a) Sindikatu Hauteskunde Bulego Publikoa eta haren lurralde-bulegoak, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuaren bidez sortuak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia, urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren bidez sortua.
- c) Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- d) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- e) Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- f) Herri Lanetarako Erakunde arteko Batzordea, apirilaren 29ko 74/2008 Dekretuaren bidez sortua.»

Orainsu, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea onartu da, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzeko asmoz. 2023ko martxoaren 29an jarri zen indarrean eta, hala,

indarririk gabe geratu zen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea. Ondorioz, besteak beste, honako aldaketa hauek ezarri dira:

1. 142. artikulua arabera, “Gizarte Inklusiorako Euskal Kontseiluaren izena “Inklusiorako Euskal Kontseilua” bihurtu da, eta organo horri 14/2022 Legea aplikatu behar zaio, indarririk gabe geratu baita abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko zena.
2. 144. artikulua arabera, “Gizarte Inklusiorako Euskal Kontseilua” “Inklusiorako Euskal Kontseilua” bihurtu da, eta aurretik aipatutako 14/2022 Legea aplikatu behar zaio.
3. Gizarte Inklusiorako Sailarteko Batzordea iraungi egin da, hura arautzen zuen 18/2008 Legea indarririk gabe geratu baita eta lege berriak ez baitu halakorik aurreikusten.
4. 14/2022 Legearen 147. artikulua eta hurrengo arabera, Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa sortzen da, administrazio-organo espezializatu gisa, eta eskumen-esparru izango du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioa, berrikuntza eta ikerketa, bazterketaren prebentzioan eta desagerraraztean esku hartzeko gaitasunak garatu eta etengabe hobetzeko tresnak diren heinean. Organo hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio.

Azken finean, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea indarrean jartzeak hainbat aldaketa eragin ditu sailera atxikitako kide anitzeko organoetan, eta, beraz, beharrezkoa da Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren Dekretua aldatzea, aipatu Legea egokitu dadin.

Proiektuak bideragarritasun juridiko eta material nahikoa dauka antolamendu juridikoan sartzeko, eta, horrez gain, garatu eta aplikatu egiten du Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen); halaber, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.2. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio administrazio autonomikoa osatzen duten organo, unitate administratibo edo erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko beharrezko autoantolaketarako ahalmena.

Aldaketa hori izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak horri buruz arautzen duena beteko da.

Zer ondorio izango dituen ordenamendu juridikoan.

Dekretua onartu eta argitaratu ondoren, hirugarrenez aldatuko da Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretua.

Aurrekontuetan izango duen intzidentzia.

Espedientean memoria ekonomiko bat txertatu beharko da, eta proiektatutako arauak aurrekontuetan izan ditzakeen ondorioak zehaztu beharko dira memoria horretan, honako hauetan ezarritakoa betez: batetik, 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen (42. eta 43. artikulua), eta, bestetik, 6/2022 Legea (13. eta 15. artikulua).

Bidezko izapideak eta txostenak.

Proiektua azkenean onar dadin gauzatu behar diren izapideei dagokienez, Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitakoaz gain, beharrezkoak dira honako hauek:

- a) Ez da egin alde aurreko kontsulta publikoaren izapidea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 133.1. artikuluan aurreikusitakoa, bat etorritik artikulua horren beraren 4. zenbakiarekin.
- b) Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren hasiera-agindua, 6/2022 Legearen 13.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarkien taulan argitaratuko dena. Era berean, partekatutako ezagutzako “legesarea” izeneko lankidetzazko tartean argitaratuko da.
- c) Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren agindua, alde aurreko onarpena ematekoa, artikuluz osatutako testua erantsita eramango duena.
- d) Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoak igorritako txosten juridikoa.
- e) Dekretuak, halaber, ez du bete beharko jendaurreko entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea, EAEko Administrazio Orokorreko antolamendu-xedapen bat baita, betiere 6/2022 Legearen 17.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- f) Proposatutako araudiaren eraginpean egon daitezkeen sailei egindako kontsulta.

- g) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, proposatutako barne-egiturari eta sail-antolaketari dagokiona, bat etorritz urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 12.1. d) artikuluan xedatutakoarekin.
- h) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, bat etorritz urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 18. artikuluan Euskal Funtzio Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.a) artikuluari dagokionez adierazitakoarekin.
- i) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, kontuan hartuta otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 14.2.j) artikuluan xedatutakoa, bai eta azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legeak (euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak) 8.1. artikuluan zehaztutakoa ere.
- j) Ekonomia eta Ogasun Sailaren Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostena, otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak (Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 14.1.d) artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta.
- k) Legezketasun-txostena, Governantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzarena, bat etorritz apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarenak) 11.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin.
- l) Ekonomiaren eta arauen kontrol-txostena, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, bat etorritz urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 25. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin.
- m) Gobernu Kontseiluak, 2012ko abuztuaren 21ean, onespena eman zien “Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideei”, eta horietatik 1. jarraibideak 2.b).i letran ezartzen duenez, sailen egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretuak salbuetsita egongo dira genero-inpaktuaren txostena egitetik. Hala ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea jakinaren gainean jarriko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen

kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko testu bategina onartzen duenak) 20. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu legean xedatutakoa era egokian aplikatzen dela egiaztatze aldera.

- n) Ez dago Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin beharrik.
- o) Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat landuko da, bertan azalduz aurrekariak, egin diren izapideak eta haien emaitzak, eta egindako txostenetako oharpen eta iradokizunetara eta, bereziki, nahitaezko txostenetan jasotakoetara egokitzeko proiektuaren testuan egindako aldaketak. Aurreko hori, 6/2022 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- p) Gobernu-kontseiluak proiektua onartu, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira igorriko du, bat etorrita Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluekin eta 6/2022 Legearen 27. artikuluekin.

Artikuluz osatutako testuaren idazkuntza elebiduna.

6/2022 Legearen 13.1.g) artikuluen arabera, hasierako aginduak adieraziko du zein teknika jarraituko den artikuluz osatutako testua itzuli edo elebidun idazteko. Ondore horietarako, aipatzekoa da erabiliko den sistema Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako itzulpena izango dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2021 Dekretuaren arabera.

Zer organok egingo duen espedientearen instrukzioa.

Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz.

Urteko Araugintza Plana.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren dekretuaren aldaketa hau ez dago jasota Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2023ko urtarrilaren 2ko Aginduan (haren bidez onartu zen Lan eta Enplegu Sailaren 2023ko arau-plangintza). Izan ere, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea oraintsu argitaratu da, eta, 2023ko martxoaren 29an indarrean jarri da.

Azalduko guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzen duen Dekretu-proiektua egiteko prozedura has dadila erabakitzea, Agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

BIGARRENA.- Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritza izendatzea prozedura hori izapidetzeko organo gisa.

HIRUGARRENA.- Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

LAUGARRENA.- Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, bat etorritz Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

BOSGARRENA.- «Legesarea» izeneko lankidetzagunean Agindu honen berri ematea, bat etorritz xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz,

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua
IDOIA MENDIA CUEVA